

2 / 07

# Irizpena

GIZARTE  
BAZTERKERIAREN  
AURKAKO LAGEAREN  
BOSGARREN

Aldaketari buruzkoa

Bilbon, 2007ko maiatzaren 23an



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico  
y Social Vasco

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea  
Gran Vía, 35-1. solairua  
48009 Bilbo  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Maketazioa eta fotomekanika: Argia Servicios Gráficos, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-1216-07

# Irizpena

## I AURREKARIAK

2007ko otsailaren 26an zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailak bidalitako idatzia jaso zuen. Idatzi horretan Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legearen Bosgarren Aldaketari buruzko txostena egiteko eskatzen zioten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko ekainaren 27ko 9/1997 Legeak 3.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak, - azaroaren 10eko 8/2000 eta 9/2000 Legeak, ekainaren 25eko Legeak eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako otsailaren 15eko 4/2005 legeak aldatua izan denak- pertsona gizartean eta lanean baztertuta izateko arriskuari aurrea hartzeko eta, halaber, mendekotasunik gabe bizitzeko behar besteko baliabiderik (norberaren edo gizarteko edo diruzko baliabiderik) ez dutenei gizarteratzen laguntzeko beharrezkoak diren gizarte-mailako baliabideak eta diru-laguntzak ezari zituen.

Era berean, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legeak eragina izan du Gi-

zarte Bazterkeriaren aurkako Legean, aurka egiten ez dion heinean. Izan ere, 27ko 10/2000 Legeak Oinarrizko Errenta eskuratzeko eskubidea eskaintzen du, eta horrela bermatzen du, alde batetik diru-laguntza hori egon egongo dela, eta, bestetik, pertso-

### GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO MAIATZAREN 22KO 12/1988 LEGEAN EGINDAKO ALDAKETAK

ARAUA	EGINDAKO ALDAKETAK
8/2000 Legea, azaroaren 10ekoa	Laguntzak eskuratzeko adinari dagokionez, ez da beharrezkoa izango zahartzaroagatikoko pensioa eskuratzeko baino adin gutxiago izatea.
9/2000 Legea, azaroaren 10ekoa	GLL laguntzak gestionatzeko lanetan ez dira Foru Aladundiak bitartekari izango.
4/2003 Legea, ekainaren 25ekoa	Laguntzak eskuratzeko gutxienez 23 urte eduki beharko dira, eta ez 25.
4/2005 Legea, otsailaren 18koa	Etxeko tratu txarren biktimek jaso ahal izango dituzte laguntza hauek.

na guztiek eskubidea dutela halako diru-sarrera batzuk eskuratzeko, aukera izan behar baitute herritarren eskubideak edo oinarrizko gizarte-eskubideak erabiltzeko eta arrazoi ekonomikoek eragindako gizarteko bazterkeria ekiditeko (pobrezia egoerak desagerraraziz).

Oraingo lege berri honekin Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eratu nahi da, eskubide gisa, eta Oinarrizko Errentaren titularrak direnentzat, etxebizitzaren alokairua edo premia egoeran sartu aurretik erositako ohiko etxebizitzarako hartutako kredituaren interesak edo amortizazio gastuak ordaintzeko aldi batean laguntza behar dutela egiaztatzen badute. Horrela, premia handien dutenek etxebizitzarako laguntza eskuratu ahal izango dute.

Idatzia jaso bezain laster Batzordeko kide guztiei bidali zitzaizen kopia bana, proposamenak eta iritziak aurkez zitzaizen gero dagokien Lan Batzordera igortzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamendurako Arautegiaren arabera. Martxoaren 23an eta apirilaren 18an Gizarte Garapenerako Batzordeak bilera egin zuen Irizpen Aurreproiektuaren zirriborro biak aztertzeko. Zirriborroekin batera Batzordearen Osoko Bilkurako kideen iritziz kontuan hartu beharreko alderdiak ere aurkeztu ziren. Hartutako erabakietatik abiatuta, honako Irizpen Proiektu hau Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2007ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkurara igortzen da eta aho batez onesten da.

## II EDUKIA

Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legearen Bosgarren Aldaketarako Aurreproiektuaren testuak honako zatiak ditu: Zioen adierazpena, hemeretzi artikulua, Xedapen Gehigarri bat, Xedapen Indargabetzaile bat eta bi Azken Xedapen. Hona hemen edukiaren laburpena:

### Zioen adierazpena

1988ko Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legean Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko xedapenak dira funtsezkoenak (hemendik aurrera GLL). Gizarte Larrialdietarako Laguntzak laguntza ekonomikoak dira, unean-unean emango direnak, eta gastu berezi batzuk egiteko behar beste baliabide ez duten pertsona batzuei laguntzeko izango dira. Gastu horiek arruntak edo ohiz kanpokoak izango dira, eta beharrezkoak gizarte-bazterkeriarik ez izateko edo bazterkeriaren ondorioak arintzeko.

Hala ere, herritarrek etxebizitza gastuetarako laguntzak behar dituzte eta gure ordenamendu juridikoan ez dago, Europako herri askotan bezala, gastu horietarako

inolako laguntzarik araututa. Horren ondorioz, honakoa gertatu da: GLL laguntzak sortu zirenetik hona gero eta gehiago erabiltzen ari dira ohiko etxebizitza edo alojamendua ordaintzeko, hau da, alokairu gastuak eta larrialdi egoera aurretik hartutako kredituen interesak eta amortizazio gastuak ordaintzeko. Horrela jokatuta, GLL laguntzek jatorrian zuten helburua galtzen ari da; aparteko eta premia handiko egoerei unean-uneko irtenbideak emateko prestazio ez aldikakoak ziren eta orain, berriaz, ez, baina ez dute bermatzen ohiko etxebizitza ordaintzeko gastuei aurre egin ezin duten herritarrek laguntza hauek eskuratuko dutenik, laguntza horiek, bere izaera dela eta, laguntza puntual edo aldi baterakoak direlako.

Egora honetarako irtenbide bat aurkitu nahian, Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1988 Legea aldatzen duen Lege honek Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eratzten du. Prestazio hau aldi-aldi ematen den laguntza ekonomikoa da, eta Oinarrizko Errenta eskuratzen dutenen etxebizitzarekin zerikusia duten premiei erantzuteko da. Laguntzak izaera finalista duenez, titularrek etxebizitzan aldi-aldi egiten dituzten gastuetarako erabili beharra dute, eta izaera hori dela eta, prestazioa ezin da eskualdatu, gaizki jasotako prestazioen itzulketarako konpentsazio edo deskontu gisa erabiltzen denean eta Estatuko Legeri orokorrak aurreikusitako atxikipen edo bahiketa kasuetan izan ezik.

## Xedapen Zatia

*Lehenengo artikulua* dioenez, Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1988 Legean "*elkarbizitzako unitate ekonomiko independentea*"ren aipamen guztiak kendu eta haien ordez "*elkarbizitza unitatea*" jarriko da.

*Bigarren artikulua* dioenez, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legean "*Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera*"ren aipamen guztiak kendu eta haien ordez "*Oinarrizko Errenta*" jarriko da.

*Hirugarren artikulua* 12/98 Legearen 2. artikulua aldatzen du, eta Gizarteratzeko eta bazterkeriari aurre egiteko tresnen artean *Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren* figura sartzen du, definizio honekin: "aldian-aldian ematen den laguntza ekonomikoa da, Oinarrizko Errenta eskuratzen dutenen edota horien elkarbizitza unitateko kideen etxebizitzarekin zerikusia duten premiei erantzuteko".

*Laugarren artikulua* 12/98 Legeari *IV. Kapitulua Bis* gehitzen dio. Kapitulua berri horren izenburua "*Etxebizitzarako Prestazio Osagarria*" da eta bertan Bazterkeriaren aurkako tresna berri honi dagozkion alderdi guztiak garatzen dira, honakoa hain zuzen ere:

- Prestazioaren *definizioa eta izaera*. Prestazio hau Oinarrizko Errentaren osagarri gisa prestatu da, honako helburu honekin: pertsona gizartean eta lanean baztertua izateko arriskuari aurrea hartzea eta, halaber, mendekotasunik gabe bizitzeko behar besteko baliabiderik (norberaren edo gizarteko edo diruzko ba-

liabiderik) ez dutenei gizarteratzen laguntzea. Etxebizitzarako Prestazio Osagarria aldian-aldian ematen den laguntza ekonomikoa da eta Oinarrizko Errenta eskuratzen dutenen etxebizitzarekin zerikusia duten premiei erantzuteko da.

- **Prestazioaren ezaugarri nagusiak.** Etxebizitzarako Prestazio Osagarria laguntza finalista da; beraz, daukan helbururako baino ezin da erabili. Indarrean dauden legeetan laguntzaren titularraren edo haren elkarbizitzako unitateko kideen ohiko etxebizitza eskuratzeko eta mantentzeko aurreikusitako era guztietako baliabide eta laguntza ekonomikoaren ordezkoak dira eta, kasuan kasu, osagarriak. Gainera, laguntza hau ezin da eskualdatu.
- Prestazioaren inguruko **bateragarritasunak eta bateraezintasunak.** Horien artean, honakoa nabarmentzen da: Etxebizitzarako Prestazio Osagarria, oro har, ez da bateragarria Gizarte Larrialdietarako Laguntzekin.
- **Prestazioa eskuratzeko eskubidea** izateko honako baldintzak bete beharko dira: Oinarrizko Errentaren titularra izatea, eta aldian-aldian legearen arabera ohiko etxebizitza edo alojamendua ordaintzeko gastuei aurre egin behar izatea, benetan premiazko egoeran daudela behar bezala egiaztatuta.
- Prestazioaren titularren **betebeharrak** honakoak dira: eskuratutako laguntza, zertarako eman diren, horretarako baino ezin izango dira erabili; araudiz ezarritako guztiak, eta Gizarteratzeko Hitzarmen bat negoziatu, izenpetu eta betetzea, besteak beste.
- **Prestazioaren zenbatekoa** araudiz finkatuko da
- Prestazioaren onuradunek egindako gastuen **ziurtagiriak** aurkeztu beharko dituzte.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek **benetan premiazko egoera** dagoela egiaztatuko dute, hau da, benetan ezin dutela etxebizitzaren gastuak ordaindu. Premiazko benetako egoerak zeintzuk diren araudiz zehaztuko da.
- Eskubidea aurkeztu eta hurrengo egunetik hasita egingo da prestazioaren **sortzapena**, eta **ordaindu**, berriz, hilabetea bete ondoren ordainduko da, Oinarrizko Errenta ordaintzen den une berean.
- **Titularra ez den bati ordaindu ahal izateko egoerak** arautu egiten dira.
- Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eskuratzeko **eskubidea**, laguntza hori emateko arrazoiak desagertzen direnean galduko da.
- Prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeko **aldian-aldian egingo diren ikuskapenetarako** baldintzak arautu egiten dira.
- Prestazioaren **zenbatekoa eta mugak nola aldatu** araudi bidez zehaztuko da.
- **Etxebizitzarako Prestazioa eskuratzeko eskubidea**, Oinarrizko Errenta galtzen den une berean galduko da. Era berean, Oinarrizko Errentarekiko egoeraz gain beste batzuk ere ezartzen dira. Ondoren, kapitulua amaitzeko, **eskubidea kautelazko neurri gisa kendu** ahal izango dela arautzen da, bai eta eskubidea indargabetzeko arrazoiak ere.

**Bosgarren artikulua** 12/98 Legearen 29. artikuluari 3. paragrafo bat gehitzen dio. Paragrafo berri horretan GLL eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriak laguntzen arteko *bateraezintasun* kasuak arautzen dira.

**Seigarren artikulua** 12/98 Legearen 31. artikuluari 3. paragrafo bat gehitzen dio. Paragrafo berri horretan elkarbizitzako unitate bakoitzak ohiko etxearen edo alojamenduaren *alokairu gastuetarako edo kredituen interesak edo amortizazio gastuak* ordaintzeko eskuratu dezakeen GLL laguntza gehienez 15.000 eurokoa izango da, titularra den urte guztietan. Era berean, ohiko etxebizitza edo alojamendua erabiltzeko edo mantentzeko behar diren *bestelako gastuetarako* laguntza 4.300 eurokoa izango da gehienez.

**Zazpigarren artikulua** 12/98 Legearen 32. artikulua osatzen du. Prestazioaren *titularrak gaitasunik ez duela legez noiz deklaratu* daitekeen arautzen du.

**Zortzigarren artikulua** 12/98 Legearen 38. artikuluari idazkera berria ematen dio. Elkarbizitzako unitate batek Oinarrizko Errenta, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza kontzeptuetan urtean eskuratu ahal izango dituen *laguntza ekonomikoen zenbateko osoa* ezartzen du. Zenbateko hori ezin izango da inolaz ere izan laguntzaren titularraren elkarbizitzako unitatearen moduko bati urtean Oinarrizko Errenta gisa eman ahal izango litzaiokeen zenbatekoaren %200 baino handiagoa.

**Bederatzigarren artikulua** 12/98 Legearen 41. artikuluari idazkera berria ematen dio. *Foru Aldundien* esku jartzen du Etxebizitzarako Prestazio Osagarrien ordainketa egiteko ahalmena, bai eta prestazio horren gaineko guztia kontrolatzekoa ere.

**Hamargarren artikulua** 12/98 Legearen 42. artikuluari idazkera berria ematen dio. Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren gaineko eskabideak eta espedienteen izapidetze lanak EAEko *udalei* dagozkiela ezartzen du.

**Hamaikagarren artikulua** 12/98 Legearen 43. artikulua osatzen du. *Prestazio berria* finantzatzeko erabiliko den dirua EAEko Aurrekontu Orokorretan Oinarrizko Errentaren kapituluan sartuko dela esaten du.

**Hamabigarren artikulua** 12/98 Legearen 44. artikuluari idazkera berria ematen dio. Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren figura sartzen du, Foru Aldundien eskumenak Udalen esku uzteari buruzko atalean.

**Hamahirugarren artikulua** 12/98 Legearen 46. artikulua osatzen du, sortu berri den *prestazioaren espedientearen izapidetze lanak* gehituta.

**Hamalaugarren artikulua** 12/98 Legearen 48. artikuluari idazkera berria ematen dio, *administrazioaren isilbideari* —Oinarrizko Errentaren eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren kasuetan, laguntza eman egiten dela esan nahi du; GLL laguntzen kasuan, berriz, laguntza ukatu egiten dela esan nahi du— eta *erabakitze-ko epeei* dagokienez.

*Hamabosgarren artikulua* 12/98 Legearen 52. artikulua aldatzen du, eta *arau-hauste arinen* kasuetan prestazio berria sartzten du; *hamaseigarren artikulua* gauza bera egiten du 12/98 Legearen 53. artikuluan arautzen diren *arau-hauste larriekin*; eta *hamazazpigarren artikulua*, gauza bera, 12/98 Legearen 54. artikuluan arautzen diren *arau-hauste oso larriekin*.

*Hemezortzigarren artikulua* 12/98 Legearen 55. artikulua berridazten du, iruzur kasuen aurrean ezarriko diren isunen atalean Etxebizitzetarako Prestazio Osagarriaren figura sartzeko. Eta azkenik, *hemeretzigarren artikulua* 12/98 Legearen 56. artikulua aldatzen du, prestazio berria isunen tipifikazioan sartzeko.

*Xedapen Gehigarri Bakarrak funtsen eskualdatzeari* dagokiona arautzen du; Etxebizitzetarako Prestazio Osagarriaren finantzaketak GLL Laguntzen finantzaketarako ezarritako zenbatekoak proportzionalki gutxitzea ekarriko duela ezartzen du.

### III KONTUAN HARTZEKOAK

#### Oro har kontu hartzekoak

##### I – Arauaren balorazio orokorra

Printzipioz, positiboa deritzogu Etxebizitzetarako Prestazio bat sortzeari Oinarrizko Errentaren osagarri gisa; izan ere, laguntza honi esker Oinarrizko Errenta eskuratzeko dutenek beste diru-sarrerara bat izango dute aldi-aldi, alojamendu gastuak ordaintzeko. Dena den, balorazio honen gaineko gauza batzuk argitu beha dira. Argitu beharrekoak ondoren azalduko ditugu.

Egun Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bitartez araututa badaude ere, horrek ez du bermatzen alojamendu gastuen arazo hau konponduko denik, unean-unean ematen diren laguntzak direlako eta aurrekontuetan mugatuta daudelako. Gainera, gure erkidegoko udal batzuetan laguntza hauek ez direla nahikoak izan eskaera guztiei erantzuteko. Berez, laguntza horiekin Oinarrizko Errentaren titularrek diru gehiago izango dute; izan ere, eskubide subjektiboa direnez, hemendik aurrera oinarrizko premiek eragindako gastuei erraza erantzun ahal zango diete eta, zentzu horretan, prestazio berria positiboa dela baloratzen dugu.

Halere, Etxebizitzetarako Prestazio Osagarria eratzea legez aurreikusteaz batera bi gauza egin beharko lirake: alde batetik, orain arte GLL laguntzei eman zaien erabilera zehatz-mehatz aztertu, eta, bestetik, Memoria Ekonomikoa egin, bertan prestazio berriaren zenbat onuradun egon daitekeen kalkulatu. Batzorde honek dakienez, ez dago gai hauen inguruko balorazio kuantitatiborik eginda<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> 2003-2005 Gizarteratzeko Euskal Planaren balantzeari buruzko Laburpen Exekutiboak, bere baieztapekan konfirmatzen dituen daturik ematen ez badu ere, onartzen du "Gizarte Larrialdietarako Laguntzek azken urteotan nabarmenki gora egin dutela, aurrekontuetan laguntza horietarako ezarritako diru ko-



Gainera, Irizpen hau aprobetxatu nahi dugu Gobernuari gogorarazteko ezinbestekoa zailtasunak dituzten pertsonak babesteko arau guztiak koordinatuta egotea eraginkortasun administratiboa lortu nahi bada, arau horiek botere betearazlearen departamentu desberdinen menpe daudelako.

Bestalde, aurkeztu zaigun Legearen Aurreproiektuak gerorako uzten du prestazio berriaren oinarriko alderdiak arautzeko lana, eta gu ez gaude ados horrekin; gure ustez, arauan bertan zehaztuta gelditu beharko lirateke. Hain zuzen ere, honako hauek egon beharko lukete zehaztuta arauan: laguntzen zenbatekoa (laugarren artikulua, 27 septies artikuluari buruzkoa), "benetako premiazko egoera" zer den (laugarren artikulua, 27 novies artikuluari buruzkoa) edo "bestelako gastuak kontzeptutik zeintzuk hartuko diren etxebizitzarekin lotutako premiatzat eta, ondorioz, zeintzuk ekarriko luketen Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eskuratzeko eskubi-dea (laugarren artikulua, 27 bis artikulua 4.c atalari buruzkoa)<sup>2</sup>.

Bukatzeko esango dugu komeniko litzatekeela epeei buruzko guztiaren gainean gogoeta egitea: ikusi beharko litzateke zer nolako eragina duten ezartzen diren epeek (laguntza eskatzeko, laguntza erabakitzeke, laguntza batetik bestera igartzeko ...) baztertuta dagoen edo, gutxienez, baztertuta egoteko arriskuan dagoen jendearentzat. Legea sortzeko ekimen honek burokrazia errazteko izan beharko luke; izan ere, arazo ekonomiko larriak dituzten pertsonak eskubide sozialak betetzeko eskatzen dutenean zailtasunez betetako burokrazia pairatu behar dute.

## II – Gizarte Bazterkeriaren aurka aritzeko tresnak

Aurrean dugun testu honekin lotuta dagoen beste gai bat Oinarriko Errentaren eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen konfigurazioa bera da. Izan ere, gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko 12/98 Legeak arautzen dituen tresnak direnez gero, osaera berezia izango dute.

purua proportzio berean handitu ez bada ere. Era berean onartzen du horrek herritarren premiei ezin erantzutea ekarri duela, bai eta, kasu batzuetan, udalek diru gehiago jarri behar izatea ere. Egoera honen ondorioz ereduaren tentsioak sortzen dira; bestalde, aurrekontuetan egiten diren murrizketek ez diote batere laguntzen aipatutako egoera horri, eta, gainera, egoerak eragindako arazoa bera ere konplexua dugu: Gizarte Larrialdietarako Laguntza gehienak unean-uneo premietarako erabili beharrean (horretarako diseinatu ziren) egoera egonkorrei aurre egiteko erabiltzen badira (batez ere alokairuak ordaintzea); prestazioaren izaera bera jartzen da zalantzan."

Era berean, honakoa baieztatzen du: "Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ..., jada ez dituzte diseinatu zirenean ezarri zitzaizkien helburuak betetzen; alderantziz, etxebizitza alorrean gertatzen diren egiturazko defizitei aurre egiteko erabiltzen hasi dira orain. Etorkizunerako estrategia gisa, ahaleginak egiten jarraitu beharko litzateke edo ahalegin gehiago egin etxebizitza alorreko politikagintzan (hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzeko programa berritzaileak martxan jarrita) edo babes ofizialeko etxebizitzetan alorrekoan (horrelako etxebizitza gehiago eginda), berriro GLL laguntzak unean-unean gertatzen diren arazoei aurre egiteko erabiltzen hasteko."

<sup>2</sup> Kontuan izanda laguntzaren zenbatekoa ezagutzea funtsezkoa dela ekimen honek zenbaterainoko garrantzia duen kalkulatzeko, agian lege bidez erabakiko litzateke hori, EAEn etxebizitzak duen batez besteko prezioaren proportzioan.

Oraingo aldaketarekin etxebizitzarako prestazio osagarria eratzen da, eskubide gisa eta Oinarrizko Errenta eskuratzen dutenentzat, baina ahaztu egiten da lehenengo Oinarrizko Errentaren gaineko arauetan aldaketa globalago bat egin beharra dagoela: izaeraren aldaketa, orain arte unibertsala eta behar bestekoa izan baita.

Bigarrenez, arduratuta gaude ez baitakigu ulertuko ote den Etxebizitzarako Prestazio Osagarriak eskubide subjektibo bihurtzea aurrera egitea dela; behar bada, GLL laguntzak eskuratzeko baldintzak zorrotzagoak izango direnez, jendeak prestazio berri horrekin atzera egin dela uste izango du. Baldintzak gogorak badira honako honengatik izango da: prestazioen arteko bateraezintasunengatik —laugarren artikuluan zehaztuta datozenak, batez ere 27 biz eta 27 quater artikulua berriei buruzko ataletan—, eskuratzeko mugengatik —seigarren artikulua— eta fondoak prestazio batetik bestera igarotzeko baldintzengatik —Xedapen Gehigarri Bakarra—. Baldintza berri horiekin guztiekin, arazo ekonomikoak dituzten batzuek prestazioa sortu aurretik baino zailago izango dute laguntzak eskuratzeko.

GLL laguntzek eskubide subjektiboa izan beharko luketen ala ez alde batera utzita, guk uste dugu edozeinek eskuratu ahal izango lituzkeela laguntza horiek, premiazko egoera batean dagoela justifikatuz gero. Horretarako, ezinbestekoa da aurrekontuan nahikoa dirua egotea, laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten guztiek eskuratu ahal ditzaten.

Zentzu honetan, Lege aurreproiektuaren Xedapen Gehigarri Bakarrak honakoa ezartzen du: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan Etxebizitzarako Prestazio Osagarriak finantzatzeko behar besteko dirua izendatzeak GLL laguntzak finantzatzeko ezarritako zenbatekoak proportzionalki gutxitzea ekarriko du. Azken urteetan eta batez ere udal batzuetan, gizarte larrialdietarako erabilitako baliabideak ez dira nahikoak izan eskaera guztiei erantzuteko; beraz, komeniko litzateke laguntza horietarako aurrekontuetan izendatutako dirua ez gutxitzea. Hitz batean, ezinbestekoa ikusten dugu Xedapen hau kentzea.

Dudarik gabe, etxebizitzarako osagarri berriarekin laguntza ekonomikoak eskuratzen dituztenek ez dituzte gestioak bi aldiz egingo, behintzat gestio batzuk. Oinarrizko Errentarekin lotuta dagoenez, tramiteak behin bakarrik egin beharko direla uste dugu. Bestalde, egoera berri hau, gure ustez Administrazio Publikoek funtzio eta eskumen bat baino gehiago edukitzeak eragindako dena, erraz konpondu ahal izango da, gizarte laguntzak gestionatzeaz arduratzen diren gizarte zerbitzuak, oinarrizkoak zein bereziak, zentralizatzen badira, eta herritarrentzako informazio-gestiorako eta laguntzarako baliabideak direla ulertuta.

Dena den, uste dugu erreforma hau aprobetxatu beharko litzatekeela 1998ko Bazterkeriaren aurkako Legearen eredia eguneratzeko eta herritarren egungo premietara egokitzeko, bazterkeriaren kasurik muturrekoenei eta mende honetako pobrezia-aren aurpegi berriei erantzunda: emakumeak, gazteak, etorkinak... Eta aldaketak

dakarren kaudimen ekonomikoari dagokionez, korrelazio handiagoa egotea nahiko genuke gastu sozialean islatuko den benetako ahalmenaren eta babestu nahian diagnostikatutako premien artean.

Oro har kontuan hartzekoak azalduta, Euskadik Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezko jotzen du berariaz kontuan hartzeko alderdi hauek eza-gutzera ematea:

### **Berariaz Kontuan Hartzekoak**

#### **Laugarren artikulua, 27 bis artikuluari buruzkoa. Definizioa eta izaera.**

Laugarren atalean honako hau dio: *"Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren titularrek ez dute indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aurreikusten diren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskuratzeko eskubiderik izango."*

GLL laguntzen helburua etxebizitzakoak ez diren bestelako gastuei (arropa, hezkuntza eta prestakuntza) aurre egitea bada, ez dirudi arrazoizkoa denik esatea prestazio berri hau eta esandako kontzeptuak ordaintzeko izan daitezkeen GLL laguntzak bateraezinak direla. Beraz, ezinbestekoa ikusten dugu, oro har kontuan hartzeko alderdiekin bat etorrita, atal honetan idatzitakoa osatu eta honela uztea:

*"Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren titularrek ez dute indarrean dagoen ordenamendu juridikoan aurreikusten diren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskuratzeko eskubiderik izango, etxebizitzarekin lotutako gastuak (27 bis artikulua 3. Atalean agertzen direnak) ordaintzeko badira."*

#### **Laugarren artikulua, 27 cuarter artikuluari buruzkoa. Bateragarritasunak eta bateraezintasunak.**

Bigarren atalak honakoa esaten du: *"Etxebizitzarako Prestazio Osagarria ez da bateragarria izango Gizarte Larrialdietarako Laguntzekin, hau da, pertsona batek ezin izango du aldi berean prestazio bien titularra izan..."*.

Aurreko Kontuan Hartzekoan argudiatu den bezala, ez dauka zentzurik prestazio berri hau gizarte larrialdietarako beste edozein laguntzarekin bateraezin izatea, gizarte larrialdietarako laguntzak lege berriarekin sortzen den prestazio berri honek estaltzen ez dituen gastuak ordaintzeko izan daitezkeelako. Hori dela eta, aurretik esandakoarekin bat etortzeko, atal hau kendu beharko litzatekeela uste dugu, edo, gutxienez aldatu eta haxe jarri: laguntza biak bateraezinak izango dira bakarrik biak alojamendu gastuak ordaintzeko erabiltzen direnean.

#### **Laugarren artikulua, 27 sexies artikuluari buruzkoa. Laguntzen titularren betebeharrak.**

Artikulu honen g) atalean, honako betebehar hau aipatzen da Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren titularren betebeharren artean: *"Gizarteratzeko Hitzarmen bat negoziatzea, izenpetzea eta betetzea."*

Baldintza hau Oinarrizko Errenta eskuratzeko baldintzen artean aipatzen da; beraz, ez dauka zentzurik etxebizitzarako prestazio osagarria eskuratzeko baldintzetan ere hori errepikatzea; izan ere bigarren laguntza eskuratzeko ezinbestekoa da lehenengo laguntzaren titularra izatea.

**Laugarren artikulua. 27 undecies artikuluari buruzkoa. Laguntza titularra ez den bati ordaintzea.**

1. atalean idatzitakoa aldatzea proposatzen da. Honako hau dioen tokian: "...*araudi bidez zehazten diren kasu guztietan...*," haxe jartzea proposatzen da: "...*araudi bidez zehaztutakoan antzekoak diren kasu guztietan...*". Honen arrazoia zera da: araudi bidez garatzean ezin da, legegintzan zuzen arituz gero, Legean agertzen direnez bestelako kasuak ezarri egon daitezkeen hutsuneak betetzeko, baina bai, berriz, legean ezarritakoan antzekoak diren kasuak.

Artikulu honetan ere honako kasuak aurreikusten dira prestazioa titularra ez den bati ordaindu ahal izateko: titularra osasun zentro batean edo ospitale batean egoitea. Kasu horietan, ez dugu uste derrigorrez beste pertsona bati ordaindu behar litzaiokeela; izan ere, prestazioa titularraren kontu korrontean sartu ahal izango litzateke. Gure ustez, prestazioaren onuradunen autonomia eta gaitasuna zalantzan jartzen da, eta kontuan eduki behar da kasu hauetan hori justifikatzea zaila dela.

**Laugarren artikulua, 27 quinquiesdecies artikuluari buruzkoa. Eskubidea kentzea.**

2. atalean, azken paragrafoan, honakoa dioen tokian: "salbuespenak araudi bidez arautuko dira" honako testu hau jartzea proposatzen da: "*paragrafo honetan aurreikusten denaren aurrean planteatu daitezkeen albuespenak honako dira: ... (albuespen guztiak aipatu)*".

JUSTIFIKAZIOA: Legegintzan zuzen arituz gero, araudi bidez garatzean ezin da albuespenak ezarri; beraz, legeak albuespen horiek zeintzuk diren adierazi eta arautu beharko ditu berariaz. Bestela, arrazoirik gabeko deslegalizazioa gertatuko litzateke.

**Laugarren artikulua, 27 sexidecies artikuluari buruzkoa. Kautelazko neurri gisa eskubiderik gabe uztea.**

1. atalaren bukaeran, "...*hiru hilabete.*" jartzen duen tokian honakoa jartzea proposatzen dugu "...*bi hilabete. Epe hori igarota berariazko ebazpenik eman ez bada prestazioak bere horretan jarraitzen duela ulertuko da.*"

JUSTIFIKAZIOA: hamalaugarren artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, bi hilabete epea behar du izan; izan ere, artikulu horrek dioenez, gai horretan eskumena duen organoak bi hilabete izango ditu prestazioa eman edo ez erabakitzeko.

### **Hamahirugarren artikulua, 3. atala.**

Datuen babeserako legeak aurreikusten duena betez, uste dugu paragrafo honetan ondoko esaldia gehitu beharko litzatekeela: *"...eta datuen babeserako legean aurreikusitakoaren arabera"*.

### **Hamalagarren artikulua.**

Oro har Kontuan Hartzekoetan adierazitakoarekin bat etorriz, komeniko litzateke laguntza emateko edo ukatzeko ezarri den bi hilabeteko epea murriztea, kontuan izanda laguntza hauek arazo ekonomiko larriak dituzten pertsonen zuzenduta daudela.

### **Hamaseigarren artikulua.**

Jakinarazten da Batzorde honi bidalitako bertsioan akats mekanografiko bat dagoela. Akatsa honako hau da: *"12/1998 Legearen 52. artikulua ..."* dioen tokian Lege horren *"53. artikulua"* jarri beharko luke benetan.

### **Hemeretzigarren artikulua.**

Jakinarazten da Batzorde honi bidalitako bertsioan akats mekanografiko bat dagoela laugarren atalean. Akatsa honako hau da: *"larria"* dioen tokian *"larriak"* jarri beharko luke

Era berean, laugarren atal honetan ere, Oinarrizko Errenta eskuratzeko eskubidea galdu daitekeela esatea falta dela uste dugu, aurreko artikuluan, hau da, hemezortzigarren artikuluan esaten denarekin bat etortzeko, hantxe hiru prestazioak aipatzen dira eta.

### **Xedapen Gehigarri Bakarra.**

Lehenengo atalak honakoa ezartzen du: *"Etxebizitzarako Prestazio Orokorra finantzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrean izendatzeak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak finantzatzeko izendatutako diru kopurua proportzionalki murriztea ekarriko du"*.

Azken urteetan eta, batez ere, udal batzuetan GLL laguntzetan erabilitako baliabideak gutxi izan direnez eskaera guztiei erantzuteko, komeniko litzateke GLL laguntzetarako aurrekontuetan egiten diren diru-izendapenak ez murriztea. Ondorioz, artikulua lehenengo atal hau kentzeko eskatzen dugu.

#### IV ONDORIOAK

Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen bosgarren aldaketarako aurreproiektuari dagokionez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak honakoa adierazi nahi du: Etxebizitzarako Prestazio Osagarria sortzea aurrerapauso bat dela uste badu ere, 12/98 Lege honen bosgarren aldaketa hau aprobetxatu beharko litzateke eta bazterkeriaren aurka borrokatzeko lege honetan azaltzen diren tresna guztiak gure gizarteak egun dituen premietara egokitu, behar diren aldaketak eginaz.

Bilbon, 2007ko maiatzaren 23an

O.E. Lehendakaria  
Antxon Lafont Mendizabal

Idazkari Nagusia  
Javier Muñecas Herreras